



ALDI BATERAKO EZINTASUNAK ETA BAJARIK GABEKO GAIKOTASUN ARRUNTEI DAGOZKIEN BAIMENAK KUDEATZEKO PROZEDURA EA DATU BABESAREN ARLOKO ARAUDIAREN ARABERAKOA DEN ARGITZEKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatu dute goiburuan adierazitako gaiari buruz. Gogora ekarri behar dugu 2012ko irailaren 5ean txostena bat egin genuela esanez Eusko Jaurlaritzaren ... Zuzendariaren Jarraibidea ezetsiz. Jarraibideak zioen langileen osasun datuak beharrezkoak zirela. Jarraibidea 2012ko urtarrilaren 28an sartu zen indarrean.

Jarraibide horren ordeztu, beste bat onartu nahi da aldi baterako ezintasunak arautzeko, eta dokumentu berrahelarazi diote Agentziari, Agentziak bere iritzia eman dezan.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderari erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderari erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritzia eskatu dute argitzeko ea datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearekin bateragarria den aldi baterako ezintasunei buruzko ... Sailaren Jarraibidearen zirriborroa (P02180 prozedura).

Labur esanda, aztertu behar den kontua da ea zilegi den datu babesaren ikuspuntutik langileen osasunari buruzko informazioa eskatzea; izan ere, barne jarraibideak datu horiek aurkezteko eskatzen baitu.



Osasunari buruzko informazioak babes berezia du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legeak (aurrerantzean DBLO) dioenez. Legearen 7.3 artikulua honakoa xedatzen du:

"3. "Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori".

Bestalde, Langileen Estatuak enpresarioari aitortzen dio, era orokorrean lan-jarduera kontrolatzeko ahala. Estatuaren 20. artikulua honakoa xedatzen du:

"20. artikulua.– Lan-jardueraren zuzendaritza eta kontrola.

1. Hitzartutako lana egin behar du langileak derrigorrez, enpresaburuaren zuzendaritzapean, edo zuzendariak izendatutako pertsonaren batek zuzenduta.

2. Langileak kontratuan lana egiteko bereganatu duen betebeharra betetzerakoan, lanerako arreta eta lankidetzaz zor dizkio enpresaburuari, hain zuzen lege-xedapenetan eta hitzarmen kolektiboetan agintzen den moduan, eta enpresaburuak zuzendaritza lanetan ohikoak dituen jardueretan emandako aginduetan edo jarraibideetan, eta, halakorik ezean, usadio eta ohituretan agintzen den moduan. Nolanahi ere, bai langileak eta bai enpresaburuak berak ere, elkarrekiko zerbitzuetan, fede onak eskatzen duen moduan jardungo dute.

3. Langileak laneko bere betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko zaintza eta kontrolerako neurririk ustez egokienak har ditzake enpresaburuak, langilearen giza duintasunari zor zaion begirunea zainduz, bai neurriok hartzerakoan zein ezartzerakoan ere; langile urrituen kasuan, halakorik badago, bakoitzaren benetako gaitasuna hartu behar du kontuan.

4. Lanera ez joatea zuzentzeko, langileak alegatutako gaixotasun-egoerak edo istripu-arrazoiak egiazta ditzake enpresaburuak, medikuek egindako azterketen bidez.

Langileak ezetza esaten badie azterketa horiei, halako egoeretan enpresaburuaren konturakoak izan daitezkeen eskubide ekonomikoak etenda gera daitezke."

Baina, nahiz eta legez baimenduta egon osasun datuak biltzea lan-jarduna kontrolatzeko, aztertu egin beharko da ea enplegatzaileen eskubide hori eta langileen datu pertsonalak babesteko eskubidetik eratorritako bermeak uztartu daitezkeen.

Horrekin lotuta, eta kontsulta eskabidearekin aurkeztutako testua ikusita, esan dezakegu Jarraibidearen zatirik handiena antolaketako alderdiei buruzkoa dela, eta Agentziak ez daukala horien gainean esateko ezer. Baina, Jarraibideak badu zati txiki bat datuak babesteko oinarrizko eskubideari buruzkoa: testuaren 3. eta 4. puntuak.

Alderdi garrantzitsuenak aztertzen hasi aurretik, adierazi behar dugu gure ustez zirriborroak oinarrizko eskubidea errespetatuz arautu dituela lehenago arazo iturri ziren hainbat alderdi, adibidez, mutuek langileei bidali beharreko dokumentazioa



Zerbitzua borondatezko baliabide moduan eratu da, eta aukera ematen die langileei beste bide batzuk aukeratzeko osasunari buruzko gorabeherak jakinarazteko.

Esan bezala, badira azpimarratu beharreko zenbait alderdi. Hasteko, 3. puntu aztertuko dugu. Puntu horren izenburua honakoa da: "Baja-partea, baja berresteko parteak eta alta-partea izapidetzea", eta 8. atalean xedatu da aldi baterako ezintasuna gaixotasun arruntagatik edo lanekoa ez den istripu batengatik gertatu bada eta ospitaleratzea ere gertatu bada, langileak prestazioen eta beste osagarrien osagarri bat jasoko duela ordainsarien % 100 osatu arte, baldin eta Jarraibidean ezarritako baldintzak egiaztatzen baditu.

Aldi baterako ezintasunagatik ordainsarien % 100 noiz jaso daitekeen (ospitaleratzea, ospitaleko larrialdi-zerbitzuetan egotea, ebakuntza kirurgikoa, ebakuntza / miaketa mediko inbasiboa eta aldi baterako ezintasuna, haurdunaldiaren ondorioz) zehazten du 3.8.2 puntuak:

"a, c, d eta e kasuetan OSASUN ZERBITZU PUBLIKOKO LEHEN ARRETOKO MEDIKUAK BETETETAKO TXOSTEA ETA BAJA-PARTEA aurkeztu beharko dira".

Hiztegian begiratu gero, hona "txosten" hitzaren definizioa: "Gai jakin bati buruzko zehaztapenak azaltzen dituen agiri idatzia edo ahozkoa."

Aldi baterako ezintasunagatik ordainsarien % 100 jasotzeko bete behar diren baldintzek osasun datuak agerian jartzea dakarte, eta gure ustez hori eskatzea gehiegizkoa da.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 4.1 artikulua oinarrizko eskubidearen oinarrizko printzipioetako bat jasotzen du: kalitatearen printzipioa. Hona hemen:

"Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko".

Ordainsarien % 100 lege jasotzeko eskubidea aitortzen duen ezintasun motak egiaztatzeko mediku txostena eskatzea gehiegizkotzat jotzen dugu, eta uste dugu nahikoa dela medikuak sinatutako agiri bat esanez betetzen dela prestazioaren % 100 kobratzeko baldintzetako bat, baina esan beharrik edo deskribatu beharrik gabe zein den zehazki patologia edo egoera zehatza.

Jarraibideak ere apur bat aurrerago antzeko zerbait adierazten du, adibidez, 4.1 puntuan nahitaezko betekizun bat finkatzen du baja-parterik gabeko gaixotasun arruntagatik baimenak izapidetzeko: "osasun zerbitzu publikoak egindako mediku-agiria aurkeztea".

Gure usez, mediku-agiria eskatzea egokiagoa da, oinarrizko eskubideari dagokionez, txosten bat eskatzea baino, dokumentu biak direlako baliokoak lan-jardunaren kontrol eginkizuna betetzeko, baina argi dago mediku-agiriak txostenak baino informazio gutxiago ekarriko duela.



Baina, osasun zerbitzu publikoak egindako mediku-agiria aurkeztea nahitaezkoa dela esateaz gain, 4.1 puntuak xedatzen du mediku-agiriak: *"baja gabeko gaixotasuna edo lanekoa ez den istripua egiaztatuz"* egin beharko direla.

Gure aburuz ez da egokia azken zehaztasun hori, hau da, ez da egokia testuak dioena: egiaztagiria gaixotasuna egiaztatu behar duela. Gure ustez nahikoa da lanik egin ezin dela dioen frogagiri bat izatea, gaixotasuna egiaztatu beharrik gabe.

Beste kontrol agintaritza batzuek ere iritzi bera dute. Adibidez mediku-agirietako datu pertsonalen tratamenduari buruzko Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Agentziaren abenduaren 21eko 2/2009 Jarraibidearen 3.3 puntuak honakoa dio:

"Ez da datuen kalitatearen printzipioaren arabera izango gaixorik dagoen langileari eman beharreko egiaztagiritan jasotzen diren datuen artean diagnostikoari, egindako probari edo pazientearen atenditu duen zerbitzuari buruzko datuak agertzea. Nahikoa da egiaztagirian jasotzea osasun arazo bat dagoela eta hortik datorrela pazientearen edo erabiltzailearen lanerako ezintasuna."

DBLOren 4. artikuluko datuen kalitatearen printzipioa betetzeko, ez da jaso behar informazio gehiegi. Horretarako, nahikoa da gaixotasun bat dagoela esatea aurreko paragrafoetan esan dugun moduan, hau da, osasun arazo bat dagoela egiaztatzea eta, ondorioz, lanaldia betetzeko ezintasuna.

Azpimarratzekoa da, Jarraibideen testua osotasunean ikusita, oinarrizko eskubidea errespetatzeko borondatea dagoela, eta, arazoa ez dela hainbeste kontzeptua bera, terminologia hobeto zehaztu beharra baizik; izan ere, gure ustez, Eusko Jaurlaritzako ... Sailak bete egin nahi baitu oinarrizko eskubidea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 21a.